

2007KO MAIATZAREN 23KO **EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko maiatzaren hogeita hiruan, eguerdiko hamabiak eta laurdenetan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, soil soilik aurreko akta onartzeko ez-ohiko batzaraldia egin asmoz. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti eta Juan Manuel Serna Portugal.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Angel Olaso Villalba zinegotziak ez dira bertaratu.

Angel Olaso Villalba zinegotziak bere ezin etorria aurrez adierazi du.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTEN ONARPENA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren Osoko Bilkuraren onespenera jartzen da gaur bertan bilkura honen aurretik egin den ez-ohiko batzaraldiko akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, eguerdiko hamabiak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.